

Sostengarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?



Ikasle Kaiera

Jone Martínez Palacios



SOSTENGARRITASUNA ETA PARTE- HARTZEA, NOLA UZTARTU? | KASUA

2010ean, Marc Gabalda, 1972an jaioa, Montcada i Reixac-eko¹ (Bartzelona, Katalunia) ingurumen teknikaria zen. Herri hau, ibilbide luzea zeukan ingurumen arloan, eta Marc-i egokitu zitzaion egoera kudeatzea .

2001. urtean, herritar talde batzuen protesten ondorioz, 1975. urtetik aurrera herrian martxan zegoen udal errauskailua, itxi zen. Itxiera horren ostean, eta hondakinen trataerari irtenbide bat emateko, 2006an, Montcadan egoitza zuen Asland-Lafarge enpresak, Can Sant Joan auzoan birbalarizazio planta bat sortzea proposatu zuen². Proiektuaren berria prentsaren bitartez zabaldu zen eta herritar talde batek Errausketaren Kontrako Plataforma (EKP) antolatu zuen. Hasiera honetan, Udal Gobernuak (PSC) proiektuaren alde agertu zen. Urtebete beranduago, 2007an, Jordi Matas (PSC) ingurumen zinegotzi berria izendatu zuten, eta Marc-ek, proiektu honi buruzko prozesu parte-hartzaile bat egitea proposatu zion. Matas-ek proposamena garatzeko onarpena eman zuen eta proiektua, 2010ean, behin behinekoz, bertan behera geratu zen. Marc-ek, Asland-en errausketa proposamena onartzeko edo ezeztatzeko, erabakia modu parte hartzailean hartzeko kontzertazio prozesu barneratzaile bat gauzatu behar zuen, baina, nola garatu errausketa proiektuari buruz erabaki bat hartzeko prozesu parte hartzailea?

Marc Gabalda

Marc Gabalda Politika Zientzia ikasketak (1991-1995) Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egin zituen. Lizenziatu eta gero, Ingurumen Gestioari buruzko Masterra Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (1996-97) eta Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Masterra Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitatean (1997-1998) egin zituen. 1999. urtean, udal oposaketan bitartez, Montcadako teknikaria bilakatu zen, ingurumen politiken diseinuan eta prozesu parte hartzaileen diseinuan espezialista bezala. Marc, 1990. urtetik aurrera, Bartzelonan bizi zen, eta hiriko talde ekologista baten partaidea zen. Beraz, 2010ean, alde batetik, Montcadako ingurumen teknikaria zen, eta bestetik, Bartzelonako talde ekologista bateko aktibista zen.

Montcada i Reixac

Montcada i Reixac, Bartzelonako eremu metropolitarrako, Vallès Occidentaleko eskualdeko, udalerrri bat zen (Ikus Mapa 1). Montcadako udalerrria, Bartzelonako iparraldeko sarreran zegoenez, zenbait garraiabide eta azpiegitura zeharkatzen zuten, besteak beste, Bartzelona-Sagrera; Bartzelona-Puigcerda eta Bartzelona-Portbou trenbideak, eta C558; C33; C17 eta N150 autobideak. 2020. urterako, Abiadura Handiko Trena (AHT) trenbide berria espero zen (Ikus Mapa 2).

¹ Aurrerantzean Montcada izenarekin identifikatzen da Montcada i Reixac, izan ere, hori baitzen herriko biztanleek erabiltzen zuten izena.

² Birbalarizazioa, CO₂ jaurtiketak murrizteko ekimena zela argudiatuz


Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

1. Mapa. Montcada eta Bartzelonaren arteko harreman geografikoa



Iturria: [googlemaps](https://www.google.com/maps) [Kontsulta: 2014.06.20]

2. Mapa. Montcadako herria zeharkatzen dituzten azpiegiturak



Iturria. Montcada i Reixaceko Udala, 2007b: 12

Mapa politikoari zegokionez, Montcadako udal gobernuan, 1987tik- 2007ra, alderdi komunistak edo sozialistak agindu zuten (ikusi 1. Eranskina).

Ingurumen gaien, Montcadak 2007. urtean, 2. Eranskinean jasotzen den sozio-ingurumen gatazken mapa zuen. Montcadak; araztegia, harrobi bi, porlan fabrika bat, bederatzizko poligono industrial, hiru trenbide sare, lau autobide, ecoparc bat eta trenak garbitzeko egiturak zituen

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

2007an. Askotan “Montcada, la ciudad de los humos” deitzen zuten hedabideek (*El País*, 2008.01.06).

ERABAKI HARTZEA GATAZKA EGOERETAN

Montcadan, sozio- ingurumen gaiak, politika publiko askoren helburu izan ziren, eta bereziki, hondakinen kudeaketaren gaian erabakiak hartzea, izan zen Udal Gobernuaren politika publikoen helburu nagusia. 1975. urtetik 2014. urtera, Montcadako Udaletxean, udal zaborraren gestioa egiteko erabakiak hartu izan ziren.

Lehenengo errauskailua. Ferreriako errauskailua sorrera eta erreforma (1975-1982)

Ferreria poligono industrialeko errausketa planta, 1975ean funtzionamenduan jarri zen³. Urteko 18.000tm-ko edukiera zuen errauskailua, 1980ean, 25.000tm gordetzera iritsi zenean, saturatu zen. Horregatik, 1981ean, Corporació Metropolitana de Barcelona⁴ (CMB) planta 42.000tm-ra handitzea planifikatu zuen, eta 1984an errauskailua berretzeko udal lizentzia eman zen. Proiektu berrian, Ferreriako errauskailu zaharrari, bi labe gehiago gehituko zitzaizkion; bat udal hondakinak errausteko, eta bestea, Bartzelonako Lurralde Metropolitarrako ospitale guztien hondakinak errausteko. Honen bidez, udal hondakinen kudeaketa sustengarria gauzatzea espero zen. Urtebete geroago, 1985ean, udal hondakinak errausteko labea martxan jarri zen. Ospitale hondakinak errausteko labea, diseinu arazoak azaldu zituen eraikitze momentuan eta ezin izan zen martxan jarri: labea kokatu behar zen lekua egitura instalatzeko txikiegia zen. Arazo horiei aurre egiteko, Udal Gobernuak, Ferreriakoaren ondoan, ospitale hondakinak kudeatzeko planta berri bat eraiki zuen 1990. urtean.

Ferreriako errauskailuaren kontrako oposizioaren sorrera

Hasierako urteetan, plantak (Ferreriakoa eta proiektatu zen ospitale hondakinatarako planta) ez zuen sortu herri oposiziorik, baina 1980. hamarkadaren amaieran, Montcadako eta Ripolleteko herritar talde batek, errauskailuaren kontra protestatzen hasi zen. Oposizioa bideratzeko, alde batetik, talde espezifikoko berriak sortu ziren: Grup de Medi Ambient de Montcada i Reixac (GMAM) eta Errausketaren Kontrako Plataforma (EKP), besteak beste. Beste alde batetik, herrian jadanik existitzen ziren elkarte batzuk, oposizioan parte- hartu zuten, hala nola, FAVMONTCADA (Montcadako auzokideen elkarte).

1992an, Udal Gobernuak eskatuta, Alemaniako TEMA S.V⁵ laborategiak eginiko analisien emaitzen ondorioz, labe berriak eta sortu nahi zen ospitale planteak berriak dioxinen eta furanoen kopuru handiak sortuko zituela publikoki azaldu zen⁶. Horren ondorioz, 1992 eta

³ Esan behar da jadanik 1972. urtean baimen legala azaldu zela (3. eranskina). 1975eko maiatzaren 3an, udaletxeko arkitektoak eta ingeniariak instalazioaren kontrako informeak gauzatu izan zituzten, baina, Espainiako Gobernuak ez zituen kontuan izan. Bada aipatzerik ere aurretik, alegia, 1968an Francisco Lasús alkateak hondakinen erregailu txiki bat instalatu zuela Ferreriako poligonoan. Errauskailu hori 1975era arte funtzionamenduan egon zen.

⁴ CMB Bartzelonako Plan Urbanismotikoa gestionatzeko sortutako egitura administratiboa zen. Geroago, Bartzelonako Lurralde Metropolitarraren barne sartu zen.

⁵ TEMA S.V, Farmazia eta Kimikan espezializatutako laborategi bat da.

⁶ *La Veu egunkariko* 1992.11. II. Hamabostaldiko alean

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

1993 urteen artean, herrian, manifestazio eta kontzentrazioak egin ziren, eta Montcadako Udal Gobernuaren alderdiak ere (PSC), ospitalerako planta berria instalatzearen kontrako jarrera azaldu zuen. Azkenik, 1993an, Kataluniako Gobernuak ospitale errauskailua martxan jartzeko baimena atzera bota zuen eta, beraz, bere funtzionamenduari eten egin behar izan zitzaion, bakarrik 1990tik 1993ra funtzionatu zuela.

Ospitale hondakinak erretzeko errauskailu hau etenda, Montcadako plataformek, 1975etik martxan zegoen hondakinen errauskailuaren kontra azaldu ziren. 1993an, oposizio politikoa eta Udal Gobernuak, egitura itxierarako jarrera zuten tokiko hedabideetan azpimarratzen zen bezala. Kontra egoteko argudioa errausketaren kutsakortasun maila zen. Bere alde, EMMA-ak (Entidad Metropolitana del Medioambiente, plantaren jabe eta gestoreak) itxieraren kontrako jarrera zuen. EMMAak, errausketa hondakinen kudeaketa egiteko prozedura garbia eta sustengarria zela azaltzen zuen. Errauskailuak generazio berriko teknologia erabiltzen zuen eta horrek bermatzen zuen, EMMAren ustez, hondakinen gestio sustengagarri bat. Azkenean, 1995eko ekainean, IC, PSC eta ERCK "pacte de progres" (garapenerako hitzarmena) delakoa sinatu zuten, non akordatzen zen lau urtetan plantaren itxiera egingo zela, baldin eta plantak ingurumen legeri europarrera moldatzen ez bazen.

Planta itxi ez zen arte, 1998arte manifestaldiak, itxialdiak, espazio publikoen okupazioak, kontzentrazioak eta gaia jorratzeko udal batzarrak gauzatu ziren (4. Eranskina). Halaber, urte horretan, errausketaren kontra egiteko Herri Ekimen Bidezko Lege Proposamen (HEBLP) bat gauzatu zen Katalunia mailan. HEBLP Plataforma Cívica para la Reducción de Residuos eta Greenpeacek antolatu zuten. 102.000 sinadura lortu zituen eta Kataluniako Parlamentuan aurkeztu ostean ezeztatu zen.

Montcako aurrekariak parte- hartzean eta kontzentrazioan ingurumen alorrean.


HEBLP ezeztatu zen urte berean, Montcadako errauskailuaren itxiera gauzatzeko, Carmé Furrió, Montcadaeko ingurumen zinegotzi zenak (ICV, Iniciativa per Catalunya Verds), Marc Gabalda teknikariaren laguntzaz, errauskailua ixteko ideien lehiaketa bat gauzatu zuen. Lehiaketa, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikasle talde batek, Acció Ecologista taldearekin elkarlanean, irabazi zuen. Hauek, Montcadako errauskailua ixteko proposamena, eta itxierarekin batera proiektu alternatibo bat aurkeztu zuten, alegia, ecoparc bat sortzea. Udal Gobernuak, ecoparcaren ideia onartu zuen gehiengo osoz, eta 1999ko irailean, errauskailua ecoparc baten truke aldatzeko, Bartzelokano Gune Metropolitanorekin (BGM) eztabaidei hasiera eman zioten. Udalak, gizarte eragileei itaundu eta ecoparca eraikitzearen ideiarekin ados egonda, proposamena EMMAra bidali zuen.

Elkarlanaren ondorio, azkenik, EMMAk eta Montcadako Udalak, ecoparcaren probak gauzatu zedenean, 2001eko martxoaren 6an sinatu zuten, urtero 50.000 tona hondakin errausten zuen errauskailuaren itxiera. Erabateko itxiera, 2004ko urriaren 4an gertatu zen eta lurra salgai jarri ziren.

Urteetako esperientziaren ondorioz, Montcadako egitura parte hartzailearen mapa zabalduz joan zen (ikusi 1. eskema).

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

1. Eskema. Montcada Udaleko gonbidapenezko mekanismo parte- hartzaileak



Iturria: kasurako egileak berak egina

Bigarren errauskailua. Asland- Lafargeko fabrikaren errausketa proiektua. Modu parte-hartzailean erabaki behar den proiektua.

Asland- Lafarge Porlan fabrika, 1917an instalatu zen Montcadan. Fabrika honek, Montcadako udal eremuan aurkitzen ziren harrobietatik ateratzen zuen ustiatzeko materia. 2000. urtetik aurrera, zenbait herritar taldeek, soinu eta kutsaduragatik, fabrikaren kontrako argudioak jorratzen hasi zituzten, eta 2005ean, soinuen eta kutsaduraren kontrako sinadurak bildu egin zituzten, batez ere, Can Sant Joan auzoan.

2006. urtean, herri komunikabideek, Asland- Lafarge enpresari buruzko berri bat argitaratzen du. Abenduaren 1ean, La Veu de Montcadak, Asland eta ACA-ren (Agència Catalana de l'Aigua) arteko akordio bat sinatu zela publikatu zuen. Itun horren bidez, porlan fabrikari, bere labeetan biomasa errausteko aukera irekitzen zitzaion. Porlan fabrikari sortutako beroa, Montcadako araztegiak sortzen zituen lohien errausketarako erabiliko zen. ACA eta Asland-eko bozeramaileek biomasa errausteko prozesua ekonomikoki Montcadako udalerrarentzako interesgarria zela azpimarratzen zuten, baita biomasaren erreketaren ingurumenaren babeserako egokia zen prozedura zela aipatzen zuten.

Biomasa errausketaren proiektu berriarekin, ordura arte Can Sant Joaneko auzokideek sortutako "kutsaduraren kontrako mugimendua", 2007an Errausketaren Kontrako II. Plataforma (EKP II) bilakatu zen nolabait.

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

Proposamenaren berri eman zen momentutik, errausketaren kontrako manifestaldiak eta mobilizazioak egon ziren bereziki Can Sant Joan auzoko herritar batzuk bideratuta. Hasieran, Can Sant Joan auzoko beste protestekin batera atxikitako aldarrikapena bazen ere, esaterako araztegia kentzea eta trenbideen lurperatzea, errausketari ateak irekitzeak, Asland- Lafargerren kontrako oposizioari protagonismo gehiago eman zion. Hasieran, “Por un barrio digno” lelopean aurkezten ziren Can Sant Joan auzoko kideak, eta modu horretan: araztegiaren itxiera, txatartegiaren itxiera, porlan fabrikaren kontrola eta trenbideen lurperatzeari egiten zioten erreferentzia euren aldarrikapenetan, baina, 2006tik aurrera, “errausketari ez” deiaren bidez bideratu zen herritar sektore baten mobilizazioa.

2006. urteko oposizio etapa horretan, bai udal gobernuko, bai oposizioko alderdi guztiek, errausketaren kontra agertu ziren. Horren adierazlea, 2007ko azaroaren 9an, 1999ko “Errausketa deuseztatzeko proposatutako mozioa” eztabaidatzea onartu izana izan zen. Mozio honetan, “udaleko batzar orokorrak, Asland fabrikaren hondakinak ez erraustea” baieztatu zuten gehiengo osoz (Ikusi 5. Eranskina).

Errausketaren proiektuaren alde agertu ziren agente batzuk, esaterako Kataluniako Gobernua eta ACA (Agència Catalana de l'Aigua), hots, proiektuaren promotorea. Hauek azpimarratzen zuten errausketa proiektua ekonomikoki onuragarria izango zela Montcadarako, izan ere, beste herrietako zaborra errauskailu horretara eramango baitzuten. Halaber, errausketak ingurumenaren babesa bermatzen zuen metodoa zela azpimarratzen zuten.

2008ko ekainaren 6an, Kataluniako Gobernu Ingurumen eta Etxebizitza Sailak, Lafarge-Aslandi eman zion biomasa erregai gisa erabiltzeko baimena. Azken honek, 18 hilabete zituen (2009ko abendura arte) errausketa gauzatzeko instalakuntzaren kalitatearen eguneratzea egiteko. Bitartean, 2010eko urtarrilean, udalak ez zuen jaso, ez fabrikako, ez Kataluniako Gobernuaren partetik balorizazioa⁷ egiteko proposamenari buruzko informarik; “nahiz eta udalak berak, Kataluniako Gobernuari berari zuzenki eskatu informazioa” (*La Veu*, 2010.01.14).

2010eko urtarrilaren 14an, balorizazioaren gaia jorratzeko asmoz, udal osoko bilkura berezia deitu zen. Honetan, udalak, alderdi politiko guztien akordioarekin, Asland-Lafargerri birbalorizatzeko baimenik ez ematea osasunerako eta ingurumenerako kalterik suposatuko ez zuten ziurtatu arte eskatu zion Kataluniako Gobernuari. Era berean, udal batzarrean, EKPIIko kideek kontrako jarrera azaldu zuten, izan ere, EKPIIko kideek fabrikaren ekimen berriari buruzko herritarren iritzia eskatzea proposatu zuten herri- kontsulta batez bidez. Hala ere, 2010eko maiatzaren zehar, EKPIIko kideek sinbolikoki antolatutako kontsulta baten bidez, auzoz- auzo bildu zituzten herritarren iritzia jakiteko botoak. 2010eko maiatzean 1.368 boto bilduta zituzten (Montcada osoko biztanleen %6,2). Ekintza honen helburu nagusia, “benetako kontsulta lotesle bat gauzatzeko herritarren onarpena izatea” zen (*La Veu*, 2010.05.16 eta 2010.05.20).

Tokiko Gobernuaren aldaketak

Marc Gabaldak, bazekien udalean gobernatzen zuen alderdi politikoaren jarrera birbalorizazioaren aldekoa zela. 2007ko hauteskundearen ostean, Jordi Matas (PSC)⁸ izendatu

⁷ Birbalorizazio energetikoa edo birbalorizazioa, errausketa terminoaren sinonimo da.

⁸ Legealdi honetan, ingurumen zinegotzia ICV izatetik PSC izatera pasatzen da.


Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

zuten ingurugiro zinegotzia. Furriók, kargua ez berriztatzeko arrazoi pertsonalak alegatu zituen, baina alderdiko ingurumen politikekin zuen desadostasuna zela eta, alde egin zuela adierazi zion Marc-eri.

Jordi Matas-ek birbalorazioaren aldeko diskurtsoa zuen. Udal Gobernuako ordezkariak espero zuten Kataluniako Gobernuak proiektuaren oniritzia 2010. urtearen bukaeran ematea, eta horrekin, gatazka sozial honetan iritzi publikoa lasaitzea (gatazka osoaren irudia ikusi 1. Ardatz kronologikoan).

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

1. Ardatz kronologikoa. Montcada-en egondako errausketari buruzko gatazkaren momenturik adierazgarrienak.



Iturria: Egileak berak egina

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

Prozesu parte- hartzailea bai, baina... nola?

2010ean deskribatutako herritar mugimendua ikusita eta 2010eko urtarrilaren 14ko udal bilkuraren akordioa ikusita, Marc-ek Jordiri proposamen bat egin zion: hiritarrek maila sinbolikoan hasitako herritar prozesu parte- hartzailea instituzionalizatzea. Prozesua, Kataluniako Gobernuaren oniritzia jaso arteko tartean gauzatu ahal zen. Jordik, herritarren iritzia ezagutzeko aukera gisa antzeman zuen proposamena. Baina ez zuen argi ikusten alderdi politikoan ingurumenaren gestioari buruzko barne eztabaida bat irekitzea. Beldur zen gaiaren gestio txar bat egiteak izan zezakeen ondorio politikoaz. Marc-ekin hitz egin ostean, Jordik prozesu parte hartzailea egitearen alde agertu zen.

Marc-ek birbalarizazio plantari buruzko prozesu parte- hartzailea eratu behar zuen orain, baina nola? Zer elementu kontuan hartu? Zeintzuk dira Marc-ek hartu behar dituen erabakiak prozesu parte- hartzaile bat martxan jartzeko testuinguru horretan?

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

1. ERANSKINA. Montcada i Reixac-eko tokiko hauteskunderen emaitzak (iturria: Espainiako Barne Ministerioa)

Municipales | Abril 1979

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. MONTCADA I REIXAC

Población: 25.260

Número de mesas: 17

Votantes a las 14:00 h : 0 (0%)

Votantes a las 18:00 h : 0 (0%)

Total censo electoral: 17.566

Total votantes: 12.120 (69%)

Abstención: 5.446 (31%)

Votos válidos: 12.023 (99,2%)

Votos nulos: 97 (0,8%)

Papeletas a candidaturas: 12.023 (100%)

Votos en blanco: 0 (0%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PSUC - Partit Socialista Unificat de Catalunya	4.762	39,61%	27,11%	39,61%	9
PSC-PSOE - Partit Del Socialistes De Catalunya	2.080	17,3%	11,84%	17,3%	4
CIU - Convergència I Unió	1.996	16,6%	11,36%	16,6%	4
CC-UCD - Centristes de Catalunya-UCD	1.191	9,91%	6,78%	9,91%	2
ERC-FNC - Esquerra Republicana de Catalunya amb Front Nacion	726	6,04%	4,13%	6,04%	1
LCR - Lliga Comunista Revolucionaria	707	5,88%	4,02%	5,88%	1
MCC-OEC - Moviment Comunista de Catalunya-Organització d'Esq	561	4,67%	3,19%	4,67%	0

Municipales | Mayo 1983

C.A. Catalunya | Prov. Barcelona | Mun. MONTCADA I REIXACH

Población: 25.625

Número de mesas: 18

Votantes primer avance : 0 (0%)

Total censo electoral: 18.565

Total votantes: 12.861 (69,28%)

Abstención: 5.704 (30,72%)

Votos válidos: 12.861 (100%)

Votos nulos: 0 (0%)

Papeletas a candidaturas: 12.861 (100%)

Votos en blanco: 0 (0%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PCC - PARTIDO COMUNISTA CATALÁN	5.496	42,73%	29,6%	42,73%	10
PSC-PSOE - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA-PARTIDO SOCIA	3.221	25,04%	17,35%	25,04%	6
CIU - CONVERGENCIA I UNIÓ	2.011	15,64%	10,83%	15,64%	3
AP-PDP-UL - ALIANZA POPULAR-PARTIDO DEMÓCRATA POPULAR-UNIÓN LI	1.042	8,1%	5,61%	8,1%	1
PSUC - PARTIT SOCIALISTA UNIFICAT DE CATALUNYA	649	5,05%	3,5%	5,05%	1
ERC - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA	442	3,44%	2,38%	3,44%	0

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

Municipales | Junio 1987

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. MONTCADA I REIXAC

Población: 25.499

Número de mesas: 21

Votantes a las 14:00 h : 0 (0%)

Votantes a las 18:00 h : 0 (0%)

Total censo electoral: 18.943

Total votantes: 12.876 (67,97%)

Abstención: 6.067 (32,03%)

Votos válidos: 12.728 (98,85%)

Votos nulos: 148 (1,15%)

Papeletas a candidaturas: 12.532 (98,46%)

Votos en blanco: 196 (1,54%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
IPC - INICIATIVA PER CATALUNYA	5.811	45,66%	30,68%	46,37%	10
CIU - COALICION CONVERGENCIA I UNIO	3.276	25,74%	17,29%	26,14%	6
PSC-PSOE - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA	2.879	22,62%	15,2%	22,97%	5
ERC - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA	566	4,45%	2,99%	4,52%	0

Municipales | Mayo 1991

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. MONTCADA I REIXAC

Población: 27.113

Número de mesas: 22

Votantes a las 14:00 h : 6.114 (29,87%)

Votantes a las 18:00 h : 8.363 (40,85%)

Total censo electoral: 20.470

Total votantes: 10.742 (52,48%)

Abstención: 9.728 (47,52%)

Votos válidos: 10.678 (99,4%)

Votos nulos: 64 (0,6%)

Papeletas a candidaturas: 10.572 (99,01%)

Votos en blanco: 106 (0,99%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PEC - PROPOSTA D'ESQUERRES PER CATALUNYA	3.765	35,26%	18,39%	35,61%	8
PSC-PSOE - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA	2.805	26,27%	13,7%	26,53%	6
CIU - CONVERGENCIA I UNIO	2.727	25,54%	13,32%	25,79%	6
IC - INICIATIVA PER CATALUNYA	632	5,92%	3,09%	5,98%	1
CLL - CATALUNYA LLIURE	240	2,25%	1,17%	2,27%	0
CDS. - CENTRE DEMOCRATIC I SOCIAL/CENTRO DEMOCR. Y SOCIAL	205	1,92%	1%	1,94%	0
ERC - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA	198	1,85%	0,97%	1,87%	0

Municipales | Mayo 1995

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. MONTCADA I REIXAC

Población: 27.393

Número de mesas: 26

Votantes a las 14:00 h : 7.156 (32,96%)

Votantes a las 18:00 h : 9.679 (44,59%)

Total censo electoral: 21.709

Total votantes: 12.690 (58,46%)

Abstención: 9.019 (41,54%)

Votos válidos: 12.621 (99,46%)

Votos nulos: 69 (0,54%)

Papeletas a candidaturas: 12.470 (98,8%)

Votos en blanco: 151 (1,2%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
IC-EV - INICIATIVA PER CATALUNYA-ELS VERDS	4.009	31,76%	18,47%	32,15%	7
PSC-PSOE - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA	3.449	27,33%	15,89%	27,66%	6
CIU - CONVERGENCIA I UNIO	2.923	23,16%	13,46%	23,44%	5
PP - PARTIT POPULAR	1.392	11,03%	6,41%	11,16%	2
ERC - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA	697	5,52%	3,21%	5,59%	1

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

Municipales | Junio 1999

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. Montcada i Reixac

Población: 26.886
Número de mesas: 27

Votantes a las 14:00 h : 6.473 (27,92%)
Votantes a las 18:00 h : 8.935 (38,53%)

Total censo electoral: 23.188
Total votantes: 11.772 (50,77%)
Abstención: 11.416 (49,23%)

Votos válidos: 11.677 (99,19%)
Votos nulos: 95 (0,81%)
Papeletas a candidaturas: 11.440 (97,97%)
Votos en blanco: 237 (2,03%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PSCPMC - PSC PROGRES MUNICIPAL DE CATALUNYA	4.501	38,55%	19,41%	39,34%	9
IC-V-EA-EPM - INIC.PER CATALUNYA-VERDESSEQ.ALT.ENT.PELPROG.MUNIC.	2.368	20,28%	10,21%	20,7%	5
CIU - CONVERGENCIA I UNIO	1.900	16,27%	8,19%	16,61%	4
PP - PARTIDO POPULAR	998	8,55%	4,3%	8,72%	2
ERC-AM - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA-ACORD MUNICIPAL	787	6,74%	3,39%	6,88%	1
L'AUP - L'ALTERNATIVA D'UN POBLE-GRUP INDEPENDENT	556	4,76%	2,4%	4,86%	0
CSP - COALICIO SOCIALISTA DE PROGRES	330	2,83%	1,42%	2,88%	0

Municipales | Mayo 2003

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. Montcada i Reixac

Población: 29.653
Número de mesas: 27

Votantes a las 14:00 h : 7.746 (32,49%)
Votantes a las 18:00 h : 10.988 (46,09%)

Total censo electoral: 23.838
Total votantes: 13.960 (58,56%)
Abstención: 9.878 (41,44%)

Votos válidos: 13.914 (99,67%)
Votos nulos: 46 (0,33%)
Papeletas a candidaturas: 13.784 (99,07%)
Votos en blanco: 130 (0,93%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PSC-PM - PARTIT SOCIALISTES DE CATALUNYA-PROGRES MUNICIPAL	7.563	54,36%	31,73%	54,87%	12
CIU - CONVERGENCIA I UNIO	1.927	13,85%	8,08%	13,98%	3
ICV-EPM - ICV-ESQUERRA ALTERNATIVA-EPM	1.895	13,62%	7,95%	13,75%	3
PP - PARTIDO POPULAR	1.327	9,54%	5,57%	9,63%	2
ERC-AM - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA-ACORD MUNICIPAL	1.072	7,7%	4,5%	7,78%	1

Sostentagarritasuna eta parte- hartzea, nola uztartu?

Municipales | Mayo 2007

C.A. Cataluña | Prov. Barcelona | Mun. Montcada i Reixac

Población: 32.153
Número de mesas: 27

Votantes a las 14:00 h : 6.291 (26,3%)
Votantes a las 18:00 h : 8.424 (35,22%)

Total censo electoral: 23.917
Total votantes: 11.709 (48,96%)
Abstención: 12.208 (51,04%)

Votos válidos: 11.648 (99,48%)
Votos nulos: 61 (0,52%)
Papeletas a candidaturas: 11.310 (97,1%)
Votos en blanco: 338 (2,9%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PSC-PM - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA-PROGRES MUNIC	4.586	39,37%	19,17%	40,55%	9
ICV-EUIA-EP - INICIATIVA PER CATALUNYA VERDS-ESQUERRA UNIDA I AL	2.180	18,72%	9,11%	19,27%	4
CIU - CONVERGENCIA I UNIO	2.056	17,65%	8,6%	18,18%	4
PP - PARTIDO POPULAR	1.433	12,3%	5,99%	12,67%	2
ESQUERRA-AM - ESQUERRA REPUBLICANA DE CATALUNYA-ACORD MUNICIPAL	1.055	9,06%	4,41%	9,33%	2

Municipales | Mayo 2011

C.A. Catalunya | Prov. Barcelona | Mun. Montcada i Reixac

Población: 33.656
Número de mesas: 25


Votantes a las 14:00 h : 6.453 (26,26%)
Votantes a las 18:00 h : 8.502 (34,6%)

Total censo electoral: 24.575
Total votantes: 12.207 (49,67%)
Abstención: 12.368 (50,33%)

Votos válidos: 11.932 (97,75%)
Votos nulos: 275 (2,25%)
Papeletas a candidaturas: 11.337 (95,01%)
Votos en blanco: 595 (4,99%)

Candidatura	Votos	% válidos	% censo	% candidaturas	Concejales
PSC-PM - PARTIT DELS SOCIALISTES DE CATALUNYA-PROGRÉS MUNICIPAL	3.631	30,43%	14,78%	32,03%	7
CIU - CONVERGÈNCIA I UNIÓ	2.306	19,33%	9,38%	20,34%	5
ICV-EUIA-E - INICIATIVA PER CATALUNYA VERDS-ESQUERRA UNIDA I ALTERNATIVA-ENTESA	2.013	16,87%	8,19%	17,76%	4
PP - Partit Popular de Catalunya/Partido Popular de Catalunya	1.733	14,52%	7,05%	15,29%	3
C's - CIUTADANS-PARTIDO DE LA CIUDADANIA	749	6,28%	3,05%	6,61%	1
Esquerra - AM - Esquerra Republicana de Catalunya - Acord Municipal	726	6,08%	2,95%	6,4%	1
PxC - PLATAFORMA PER CATALUNYA	179	1,5%	0,73%	1,58%	0

2.-ERANSKINA. Montcadako sozio- ingurumen arazoaren mapa



Iturria: egileak berak egin

3. ERANSKINA: Ferreriako errauskailurako baimen legala, 1972ko dokumentua

- 94 -

AYUNTAMIENTO
DE
MONCADA Y REKACH
(BARCELONA)

NO. 77 Va- 1

REGISTRO GENERAL

Núm. de Entrada 420

Núm. de Salida

Fecha

FECHA DE ESTE ESCRITO _____

REGISTRO DE SALIDA N.º _____

NEGOCIADO O SERVICIO _____

REFERENCIA _____

ESCRITO N.º _____

FECHA _____

SERVICIO O ASUNTO _____

Ilmo. Sr. Gerente de la Comisión
de Urbanismo y Servicios Comunes
de Barcelona.-

Plaza Fernando Lesseps, 12- 6ª

Barcelona-6

En contestación al escrito de esa Comisión de Urbanismo de fecha 26 de febrero ppto, en relación con la instalación de una planta incineradora de basuras en este término municipal debo manifestar a V.I. que este Ayuntamiento acuerda prestar su conformidad a dicha instalación, siempre que se ajuste a los extremos que se detallarán, que en definitiva coinciden con las condiciones señaladas por esa Comisión y que son los siguientes:

- 1ª.- Que la capacidad a vertedero de basuras no rebase las 50 Tm. diarias que se especifica en dicho escrito y que cualquier modificación requiera el oportuno expediente con audiencia de los Ayuntamientos afectados.
- 2ª.- Que dicho silio sea único y exclusivamente para los Municipios de Sardanyola, Ripollet y Moncada.
- 3ª.- Que se ajuste a lo dispuesto en el Reglamento de actividades molestas de 30 de noviembre de 1.961, y demás disposiciones de aplicación al caso.
- 4ª.- Que dicha planta incineradora, se emplace lo más lejos posible del casco de la población.
- 5ª.- Que se evite el almacenamiento de basuras y depósitos de materiales malolientes garantizando en todo momento la sanidad ambiental dada la proximidad a zonas de viviendas y otras industrias.

En términos generales que esta Comisión de Urbanismo tenga en cuenta todas las circunstancias que motivan la preocupación de este Ayuntamiento en tal clase de instalaciones a fin de que las mismas funcionen no solamente con las garantías indicadas sino con el convencimiento de la población de que no constituye tal instalación un perjuicio para la salubridad e higiene de la misma."

Dios guarde a V.I. muchos años.
Moncada y Rekach, a 20 de marzo de 1.972

El Alcalde,


S. Senator des pabis van C. Quatorcell
1 onduas en archiuo en copia. 24-3-72. C.M.

Iturria: Montcadako Udala

4. ERANSKINA. 20 años de muerte. Incineradora de Montcada i Reixac.

<https://www.youtube.com/watch?v=IbJmzdrzYfl> [Kontsulta:2014.04.18]

5. ERANSKINA. Errausketaren kontrako mozioa.



Erreferentziak

MONTCADA I REIXACEKO UDALA eta UAB, 2007a. Proceſ Participatiu dels criteris per a la constitució del I Consell Territorial de Montcada Centre; Montcada Vella, eta Bosc d'en Vallença Montcada i Reixaceko Udala- UAB. Bartzelona.

MONTCADA I REIXACEKO UDALA et. All, 2007b. Projecte Educatiu de Montcada i Reixac. Montcada i Reixaceko Udala. Bartzelona.

MONTCADA I REIXACEKO UDALA, 2001a. Sobre les instal·lacions metropolitanas de gestió de residus municipals de gestió de residus municipals al municipi de Montcada i Reixac. Montcada i Reixaceko Udala. Bartzelona.

_____, 2001b. T21Aren auditoriarako inkeſta dokumentua. Montcada i Reixaceko Udala. Bartzelona.

_____, 2001c. Memoria descrittiva A21L. Montcada i Reixaceko Udala. Bartzelona.

_____, 2001d. Auditoria ambiental municipal de Montcada i Reixac. Montcada i Reixaceko Udala. Bartzelona.

Montcada i Reixaceko Telebista: www.teleMontcada.es.vg [Kontſulta: 2014ko martxoak 12].